



UDALA ERATZEKO ETA ALKATEA AUKERATZEKO BILKURAREN AKTA

Murgian, 2023ko ekainaren 17an, goizeko 10:00etan, Hauteskundeen Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. eta 196. artikuluetan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 37. artikuluan xedatutakoa betez, eta Zuiako Udal berria eratzeko, 2023ko maiatzaren 28ko udal-hauteskundeen emaitzak ikusita, honako hauek bildu dira:

MARIELA BARAÑANO GOIRIZELAIA
ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA
ANDER BARANDICA SANTOS
ALVARO RUIZ OTXOA DE ERIBE
UNAI GUTIERREZ URKIZA
CRISTINA LARRAZABAL IBAÑEZ DE ELEJALDE
AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA
MARIA INMACULADA ELORZA VERGARA
MARIA ELENA URCELAY ALTUNA
NEREA IDIGORAS LASAGA
ANDRES LAFUENTE OTXOA

Bilkurara Oiertza Urquijo Alaña korporazioko idazkaria bertaratu, eta ekitaldiaren fede eman du.



ADIN-MAHAIA OSATZEA

Jarraian, Udalbatzako idazkariak, bilkura ireki ondoren, Hauteskundeen Araubide Orokorriari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikulua irakurri du:

"Ehun eta laurogeita hamabosgarren artikulua

1. Udalbatzek jendaurreko bilkura egingo dute hauteskundeak egin eta hogeigarren egunean, salbu eta zinegotzi hautetsien aldarrikapenaren aurka hauteskunde-auzietako errekurtoa aurkeztu bada; kasu horretan, hauteskundeen berrogeigarren egunean eratuko dira.

2. Horretarako, adineko mahai bat eratzten da, ekitaldian dauden hautetsietatik zaharrenak eta gazteenak osatua. Korporazioko idazkariak jardungo du idazkari.

3. Mahaiak aurkeztutako izendapen-agiriak edo hautetsien nortasunari buruzko egiaztagiria egiaztatuko ditu, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udalari igorritako ziurtagirietan oinarrituta.

4. Aurrekoa egin ondoren, Mahaiak Udalbatza eratutzat joko du zinegotzi hautetsien gehiengo osoa biltzen bada. Bestela, bi egun geroago egingo da bilkura, eta Udalbatza eratuta geratuko da, bertaratutako zinegotzien kopurua edozein dela ere".

Eta, horrela, xedatutakoa kontuan hartuta, eta hautetsien nortasuna egiaztatuta, Adin Mahaia eratu da.

Honako hauek osatuko dute Adineko Mahaia:

AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA (Lehendakaria)	Zinegotzi hautetsi zaharrena
ANDER BARANDICA SANTOS	Zinegotzi hautetsi gazteena

UDALA ERATU AURREKO EGIAZTAPENAK

Adineko Mahaia eratu ondoren, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 36.2 artikuluan xedatutakoaren arabera beharrezko neurriak hartu ondoren, idazkari-kontuhartzaileak



beharrezko neurriak hartu dituela jakinarazi da, Toki Korporazio berria eratzeko egun honetan zenbaketa egin dadin eta Udal Kutxan edo banku-erakundeetan gordailututako eskudiruzko izakinen edo Korporazioaren berezko balioen egiaztagiriak prest eta eguneratuta egon daitezen, baita Korporazioaren eta, hala badagokio, bere Erakunde Autonomoen ondarearen inbentarioari buruzko dokumentazioa ere. Aurretik azaldutakoari buruzko dokumentazioa bere esku jarri da.

Jarraian, Mahaiko idazkariak adierazi du, hautetsien izendapen-agiriak egiaztatu ondoren, pertsona horien nortasuna egiaztatuta geratzen dela, Vitoria-Gasteizko Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak emandako ziurtagiriaren arabera. Ziurtagiri hori Adineko Mahaiares esku jarri du, eta baliozkotzat jo ditu.

Ondoren, Mahaiko idazkariak adierazi du zinegotzi hautetsi guztiek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7 artikuluan aipatutako adierazpenak egin dituztela, Udal honetako Interes Publikoen Erregistroan inskriba daitezen. Adineko Mahaiko lehendakariak zinegotzi hautetsiei gonbidapena egin die, adierazpena egin ondoren sortutako bateraezintasun-arrazoiren batek eragiten dien azal dezaten, baina zinegotzi horiek ez dute inolako adierazpenik egin.

Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.4 artikuluan eta Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 37.4 artikuluan ezarritako eskakizuna betetzen dela kontuan hartuta, eta bilkura honetan zinegotzi hautetsien gehiengo osoak parte hartzen duela kontuan hartuta, Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 108.8 artikuluan aurreikusitako legezko baldintza bete da, zin edo promesa egiteari buruzkoa.



ZIN EDO PROMESA EGITEA

Udaleko idazkariak Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 108.8 artikulua irakurri du, zinegotzi hautetsiak karguaz jabetzeari buruzkoa, zin edo promesa egiteko:

"Karguaz jabetzeko unean eta kargudun izateko, hautagai hautetsiek Konstituzioari men egingo diotela zin egin edo hitzeman behar dute, bai eta dagozkien lege edo erregelamenduetan aurreikusitako gainerako betekizunak bete ere".

Zin edo promesa egiteko, kargu edo funtzio publikoez jabetzeko formula arautzen duen apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan aurreikusitako formula erabili da:

«¿Juráis o prometéis por vuestra conciencia y honor, cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Concejal, con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?».

«Zuen kontzientzia eta ohoreagatik, zin egin edo agintzen duzue zinegotzi karguak dituen eginkizunak, Erregeari leialtasuna erakutsiz, zintzoki beteko dituzuela, eta Konstituzioa, Estatuaren oinarritzko arau moduan, zaindu eta zainaraziko duzuela?».

Ondoren, Adineko Mahaiko lehendakariak zinegotzi hautetsi bakoitza izendatu, eta honela adierazi du:

Zinegotzi hautetsia	Adierazpena
UNAI GUTIERREZ URKIZA	Bai, prometo por imperativo legal.
CRISTINA LARRAZABAL IBAÑEZ DE ELEJALDE	Bai, legeak ala aginduta zin egiten dut.



MARIA INMACULADA ELORZA VERGARA	Bai, prometo por imperativo legal.
MARIA ELENA URCELAY ALTUNA	Bai, legeak ala aginduta zin egiten dut.
NEREA IDIGORAS LASAGA	Bai, legeak ala aginduta zin egiten dut.
MARIELA BARAÑANO GOIRIZELAIA	Sí, prometo.
ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA	Sí, prometo.
ALVARO RUIZ OTXOA DE ERIBE	Bai, zin egiten dut.
ANDRES LAFUENTE OTXOA	Sí, prometo.
AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA	Bai, Euskal herriko Errepublika lortu harte ala zin egiten dut.
ANDER BARANDICA SANTOS	Bai, zin egiten dut.

Karguaz jabetu ondoren, izapidetutako kredentzialaren kopia konpultsatua eman zaie.

Huteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikuluan xedatutakoa betez, 10:10ean, mahaiburuak Zuiako Udala eratutzat jo du, 2023ko maiatzaren 28an egindako udal-huteskundearen ondoren.

ALKATEA HAUTATZEA

Ondoren, Udaleko idazkariak Huteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikulua irakurri eta Udalbatzako alkate-udalburua hautatu du. Idazkariak gogorarazi du isilpeko bozketaren bidez jarduteko gehiengo osoa behar dela, eta bozketa izendunaren bidez jarduteko, botoen gehiengo soila:

"Ehun eta laurogeita hamaseigarren artikulua

Udalbatza eratzeko bilkura berean alkatea hautatuko da, honako prozedura honen arabera:



- a) Dagozkien zerrendetako buru diren zinegotzi guztiak izan daitezke hautagaiak.
- b) Haietakoren batek zinegotzien botoen gehiengo osoa lortzen badu, hautetsi izendatuko dute.
- c) Horietako batek ere ez badu gehiengo hori lortzen, dagozkion udalerrian herri-boto gehien lortu dituen zerrendetako burua izendatuko da alkate. Berdinketa gertatuz gero, zozketa bidez ebatziko da. 100 eta 250 biztanle arteko udalerrietan, zinegotzi guztiak izan daitezke alkaterako hautagai; hautagairen batek zinegotzien botoen gehiengo osoa lortzen badu, hautetsia izango da; hautagairen batek gehiengo hori lortzen ez badu, zinegotzien hauteskundeetan herri-boto gehien lortu dituen zinegotzia izendatuko da alkate”.

a) Alkatetzarako hautagaiak aldarrikatzea

Idazkariak ohartarazi du hautagai direla dagozkien hauteskunde-zerrendetako buru diren guztiak, salbu eta hautagairen batek uko egiten badio Alkatetzarako hautagaia aurkezteari.

Horren ondoren, adineko mahaiko lehendakariak galdetu du ea alkaterako hautagaitza mantentzen duten edo erretiratu egiten duten, eta honako hau adierazi du:

Mantentzen dute	EBBILDU
Mantentzen dute	EAJ-PNV
Mantentzen dute	ZBG-ZNU

Jarraian, Udaleko Alkatetzarako hautagaiak aldarrikatu dira.

b) Bozketa-sistema aukeratzea

Hautagaiak aldarrikatu ondoren, mahaiburuak zinegotzi hautetsiak gonbidatu ditu alkatea hautatzeko bozketa-sistema hauta dezaten (Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 101. artikulua):

**"101. art.**

Arruntak, izendunak eta sekretuak izan daitezke bozketak. Baiezko, desadostasun edo abstentzio-zeinu konbentzionalen bidez adierazten direnak ohikoak dira.

Izendunak dira deituz egiten diren bozketak, abizenen hurrenkera alfabetikoaren arabera, eta, betiere, azkenekoz lehendakaria, eta korporazioko kide bakoitzak, deitzen diotenean, ozen erantzuten du «bai», «ez» edo «abstenitzen naiz».

Korporazioko kide bakoitzak hautestontzi edo poltsa batean sartzen duen txartel bidez egiten direnak sekretuak dira.".

Ohiko bozketak-sistema hautatuta, esku hutsezko bozketaren bidez egin da, goranzko hurrenkeran:

Hautagaia	Alderdi Politikoa	Boto kopurua
ANDRES LAFUENTE OTXOA	ZBG-ZNU	1
MARIELA BARAÑANO GOIRIZELAIA	EAJ-PNV	4
UNAI GUTIERREZ URKIZA	EBILDU	6

Ondorioz, eta bozketaren emaitza ikusita, 11 zinegotzi direnez eta 6 zinegotzirena gehiengo osoa denez, adineko mahaiko lehendakariak 10:15ean EHBILDUko zerrendako buru den UNAI GUTIERREZ URKIZA alkate-udalburu izendatu du.

KARGUAZ JABETZEA

Ondoren, TATBren 18. artikularekin (781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duena) eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 40.2



artikuluarekin bat etorritz, Adineko Mahaiko Lehendakariak Konstituzioari men egiteko formula irakurri du, hitzez hitz honako hau:

«¿Jura o promete por su conciencia y honor, cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Alcalde-Presidente, con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?».

«Zure kontzientzia eta ohoreagatik, zin egin edo agintzen duzu Alkate-Lehendakari karguak dituen eginkizunak, Erregeari leialtasuna erakutsiz, zintzoki beteko dituzula, eta Konstituzioa, Estatuaren oinarritzko arau moduan, zaindu eta zainaraziko duzula?».

Jarraian, alkateak honela hitz egin du:

Alkate-udalburu hautetsi	Adierazpena
UNAI GUTIERREZ URKIZA	Bai, por imperativo legal.

Zin egin ondoren, mahaiburuak karguaren ikurrak eman dizkio (aginte-bastoi/makila), eta UNAI GUTIERREZ URKIZA Aretoko buru bihurtu eta Adineko Mahaia desegin da.

Jarraian, UNAI GUTIERREZ URKIZA alkate-udalburuak hitza hartu eta eskerrak eman ditu.

Jarraian, UNAI GUTIERREZ URKIZA alkate-udalburuak bilkura amaitu du, 10:23an, Murgian. Nik, idazkaria naizen honek, horren fede ematen dut.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA